

## NOTA DE PRENSA

### **BILBAO ZERBITZUAK SOZIETATEAK JARDUEREZ BETEKO DU ERRIBERAKO MERKATUA**

- **Egungo bisitarien kuriositatea eta interesa piztea da asmoa, eta, bidez batez, bisitari berriak erakartzea**
- **Ostiraletan eta hilabeteko larunbat batzuetan, merkatuak, besteak beste, musika, bisita gidatuak, dastatzeak eta aurkezpenak izango ditu.**
- **Ekimen hau sustatzeko lehen jarduera gaur izan da, Itsasmendi Upeltegien txakoli beltzaren aurkezpenarekin**

**Bilbon, 2012ko abenduaren 14an.-** Bilbao Zerbitzuak sozietateak gaur aurkeztu du Erriberako Merkatuan jardueraz beteriko egutegi oso bat. Ekimen honen helburua egungo bisitarien kuriositatea eta interesa piztea da, eta, bide batez, bisitari berriak berritutako hornidura-merkatura erakartzea.

Astero sustapen jarduera bat egitea da asmoa -ostiraletan edo larunbatetan-, era ezberdinetako jarduerak antolatzea, alegia: merkatuan saltzen diren produktu ezberdinen sustapena, Artxandako Ostalaritza Eskolak gauzatzen dituen jarduerak, Bilbao Musikako ikasle nahiz kideek egiten dituzten musika-jarduerak eta, merkatuaren errealitatea ezagutzeko asmoz, kolektibo zein elkarte ezberdinek egingo dituzten bisitak.

Helburu hori lortzeko, Merkatuko merkataria guztien partaidetza eta esku-gartzea hartu da aintzat, Merkatarien Elkartearen bitartez, hain zuzen, bai eta Bilbao-Bizkaia SlowFood Elkarteko sukaldari zein Merkatuarekin erlacionatutako produktoreena ere. Egutegia ez da oraindik itxi, eta hornidura-zentroan parte hartzen duten kolektibo guztientzat nahiz bertan egotea interesgarri egin dakieken kolektiboentzat zabalik dago. Proposamen irekia da beraz, eta egin daitezken jarduerak ere oso malguak dira. Orain arte aurreikusi diren jarduerak (gehiago egon daitezke) honakoak dira:

<b>Urtarrilak 4</b>	Enkarterriak	Koldo Santiago	Alvaro Garrido
<b>Urtarrilak 11</b>	Urdaitegia	Ascen	
<b>Urtarrilak 18</b>		ESHA	
<b>Urtarrilak 26</b>		Bilbao Musika	

Otsailak 1	Perretxikoa keta bestelakoak		Pablo Urzay
Otsailak 15		ESHA	
Otsailak 23		Bilbao Musika	
Martxoak 1	Gaztak	Bego Isusi	Eneko Atxa
Martxoak 15		ESHA	
Martxoak 30		Bilbao Musika	
Apirilak 5	Antxoak	Karmelo Toja y Juan Carlos Royo	Aitor Basabe
Apirilak 19		ESHA	
Apirilak 27		Bilbao Musika	
Maiatzak 3	Haragia	Isusi y Arriaga	Txemi Olazabalaga
Maiatzak 17		ESHA	
Maiatzak 25		Bilbao Musika	
Ekainak 5	Hegaluzea	Juan Carlos Royo	Sergio Ortiz
Ekainak 21		ESHA	
Ekainak 29		Bilbao Musika	
Uztailak 5	Frutak	Mikel Karmenza	Mikel Población
Uztailak 19		ESHA	
Uztailak 27		Bilbao Musika	
Irailak 6	Barazkiak, Tipula, Tomatea	Ana Mari Llaguno	Ricardo Pérez
Irailak 20		ESHA	
Irailak 28		Bilbao Musika	
Urriak 4	Arrautzak eta ogiak	Saturio Hornillos	
Urriak 18		ESHA	
Urriak 26		Bilbao Musika	

## Txakoli Beltza

Gaur Merkatuaren barruan gauzatu diren lehen sustapen jarduerak izan dira. Hain zuzen ere, Itsasmendi upeltegi bizkaitarrek egin duten lehen postura aurkeztu dute: "Itsasmendi Eklipse" txakoli beltza. Produktu hau atlantikokoa da erabat, oso pertsonala, eta Itsasmendi Upeltegiaren mahasti partzelekin eta ardo-filosofiarekin bat egiten du, ezin hobeto.

Txakolia egiteko, Itsasmendi Upeltegiak Gorlizen eta Muskizen dauden mahasti bi hautatu ditu, Kantauriko artadia izenaz ezagutzen denaren barruan. Bestetik, ontzea 2.000 litroko haritz frantseseko terreina berri batean egin da, 6 hilabetez, eta, ondorioz, konplexutasuna eta egitura ematen dio. Gisa horretan, egurra baliatu da lehen elaborazio honetarako, nahiz eta, bigarren mailan, ekoizpen guneak zehaztutako gainerako ezaugarrien osagarri gisa baliatu.

Datozen urteetan, Itsasmendi Upeltegiak kalitatearen eta iraunkortasunaren arabera lan egiten jarraituko du, bai ardogintzan nola enologian, Txakoli

Beltza gure gastronomia bikainaren osagarri izan dadin.

### **Angelman Sindromearen Elkarteari Laguntza**

Bilbao Zerbitzuak sozietateak Angelman Sindromearen Elkartek (ASA) abiarazitako kanpainan parte hartu gura izan du, diru-funtsak jasotzeko asmoarekin. Horretarako, funtzionatzen duten edo funtzionatzen ez duten sakelako telefonoak eta tabletak biltzeko postontzia jarri du.

Euskal Herrian, 10 pertsona jo ditu jatorri neurogenetikoa duen gaixotasun arraro honek, eta adimen-atzeratasuna eta mugikortasun arazoak sortzen ditu. 20.000-30.000 jaioberritatik bati eragiten dio gaixotasun honek.

#### **UDALA • AYUNTAMIENTO**

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48001 Bilbao

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 52 15 Faxa: 94 420 52 16 H. elek: [prensa@alcaldia.bilbao.net](mailto:prensa@alcaldia.bilbao.net)

[www.bilbao.net](http://www.bilbao.net)